

BALENDIN ENBEITA

BERTSOPAPER-LEHIAKETA

XIV. EDIZIOA

BERTSO SORTA SARITUAK

Mendipe baten dago
Uspitxa Jauregi,
nere txikitxutako
jolasen lantegi.
Pozik egingo neukez
idazten urte bi,
zenbat maite zaitudan
azaldu banegi!

Balendin Enbeita

Izate eta haragi

Doinua: Egun on Euskal Herria/Noiz hasi ote zen dena?

1

Maitasunik ba ote den
ez nuke nahiko epaitu,
baina izena duenak
eragin egiten baitu
ideia ideia bada
ezin ote da abstraitu?
Behin sinesmena sustraitu
eta jarraitu, jarraitu....
mugarik ez da zabaldu,
malkarrik ez da zelaitu.
Asko maitatu nahi dugu,
zoratu, lehertu, blaitu...
eta aske maitatzeak
beldurtu egiten gaitu.

3

Kulturan bizi nahi dugu
ez izan arren Abbadie,
gazte ta ikasle gara,
ez ondasun, ez jabari,
destruktiboki sortzaile,
egile inork badagi,
anti-lumaren trabari
esan diogu "tarari!",
euskaldunaren motxila
bihurtu dugu garabi,
bi tipo marika gara
izate eta haragi...
hain apurtzaile izan nahi.
Eta zergatik gara bi?

2

Behin kiribildu zitzaigun
elkarrekiko aihena,
zer den nik ez dakit baina
zerbait bada gu biena.
Ordea, kortse estua
zait harreman itxiena.
Sexuzko fantasiena,
horixe da gutxiena!
Jelosiak egin zaitu
bihotz-zatien hiena
"barne-sena da" diozu
"gordin ta basatiena";
hiztegian leitu arte
zer zen ez zenekiena.

4

Hau ez da baimen eske bat
ez eskatzeko baimenik,
ez dakart ametsik, pentsa!
ez dakart itxaropenik,
baina lur zabalago bat
behar dugu zuk beste nik.
Ertz oro ez denez zenit,
baietz esango bazenit
koherentzia mingarri
litzateke ziurrenik.
Nahiz ez dudan hitz emango
ondo aterako denik
sinesten dugun horretan
sinets dezagun lehenik.

XIV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5

Hil ditzagun zezenak ta
ez da egongo adarririk.
Inguratzen gaitu mila
harreman gorrotagarrik,
ustez oraindik ez gara
halako bat, ta beharrik!
“Ez dago fikzio txarrik,
baina bizitzan alferrik
ezin da eskatu irri bat
entzun nahi gabe negarrik”.
Gureak ez dauka zertan
birena izan beharrik.
Batera egon nahi badugu
zergatik egon bakarrik?

7

Ordea, kartoi bat daukan
orok ez dionez “bingo!”
sinetsi nahi banu ere
ez digula eragingo
Donostiaz at non dago
bide bete tamarindo?
Lehengo edo oraingo
harreman oro da linbo,
saiatu ezik ez dugu
sano mantentzen jakingo.
Errespetuzko oinarri
bat bete dezagun zindo,
ereduak ez baikaitu
eredugarri egingo.

9

lhesean jardun gara
araz arau, hedez hede,
ordua da askatzeko
koska eta erliebe.
Hautu bainoago baita
monogamia botere.
Zabal ateak ta beude!
Bihurtu biona geure
eta ea oroitzeke
egiten digun mesede
zoriontsu izateko,
normaren legeak lege,
ez dugula inor behar;
beraz, ezta elkar ere

6

Harreman itxi, sendo bat,
akasgabea, purua,
zeren baitan mantentzen den
ez da kontu segurua.
Marko baten erakusle
baino ez da kopurua
ezein nahiren sorburua
ez delako asturua.
Mundua bitarra al da?
Ba buka bedi mundua.
Zaintzea bihurtu dugu
gure lehen helburua
baina ez dira gauza bera
elkar ta geure burua.

8

Zalantzatik ez hastea
aukera bat ez zen, kito!
Hautu implizitu oro
denez hautu frenetiko
itu ideologikoak
behar luke aurretiko:
ez jainko, ez arketipo,
ez gailur hipotetiko;
guk hautatzea zer zeru
eta zer zoru etiko.
Fidel izan behar dugu,
ez betitik, ez betiko,
baizik geuregatik eta
geure buruarekiko.

Bertso berriak, euskarari alegia modura jarriak.

Doinua: *Querci oratio*

1

Esanahiak gatibatzen
dituen amarauna,
mingainaz zernahi hauteman
dezakeen zirauna,
haritz enbor sendoko bat
luzaro bizirauna,
eta gero ilintia
eta gero ilauna...

3

Basoa hartu du suak:
lehenik hil dira hartzak.
Haize berriek haritza
jotzen dukete zahartzat.
Beldur dira azkonarrak,
muskerrak ta orkatzak.
Piztiok eta hizkiok
hirira daramatzat.

5

Euskararen hitz bakoitzak
esanahirik badauka,
hori da amona beltz bat
metroan alarauka,
basurde bat desgaraiko
basatzetan iraulka,
harri estrategiko bat
presentearen aurka.

7

Hitzak ez badira bala
ta hiztunak soldadu,
zer da ba "irabaztea"
zer da "haiek" zer da "gu"?
Euskararen hitz bakoitzak
esanahirik ez badu,
orduan erabiltzeko
beharrak ez daukagu!

2

Jazo bada ardagaitan
pindarren bat piztea,
debaldetan da keari
injustu iriztea...
Ba al da ezer baso bat
ta bere zuhaizpea
suak hartu aitzin bezain
ederra ta tristea?

4

Hiria ere hartu du
suak beso zabalik:
nahiago nuke mingaina
erre izan ez balit!
Euri-zirinak kaleak
aton ditzake polit,
baina ez dago erabat
garbitzen den odolik...

6

Uso karraskariak ta
arratoiak hegaldan,
gau-hontza desegokiak
saldoka zaldi-saldan,
txakur errabiatuak
ehunakako samaldan,
hauts egindako asto bat
urtarrileko maldan.

8

Gure mingainen puntako
jaurtigai dizdizari
horren bidez belarrien
barrengo argizari
hori dena erauztea
ez balitz aski sari...
Hitza zor zaigu ta gu zor
gatzaizkio hitzari!

205

Doinua: *Nehoiz ez da senditzen*

1

Izan zitezkeen liga
partiduak guztira
Ez-Festak ta bertako
botiloi ta mobida
Euskal Presoak, ekarri
nahi direnak herrira
205 mendi gailur
205 aintzira
Baina jarrita gure
zilberrari begira
tamalez daramatzagun
greba egunak dira

3

Zabalegia baita
minaren azalera
ohitura zaharrak bueltan
urteberri aldera
Iraispenen makinari
makina bat galdera
Ehun lankidetik gora
zihoazen kalera
Greba eginez jalgi
nahi zen lurrazalera
lukurreriak dakarren
eskubide galera

5

Lantegi aitzinean
egun adina oren
kideen konpromezu
osoaren aitormen
Baina jakinik grebetan
zer tentsio dagoen
polizia bidaltzea
zer burla, zer eromen!
Argi ikusi baita
talka hauen ondoren
armen hitza nahi dutela
hitzarmena baino lehen

2

Bizitza eremu dut
Laudio ta Araba
Bikote langabe ta
hiru seme-alaba
Egunean bizi gara
eta pozik, ahal bada
Kaleratzeek jo arte
lantegiko aldaba...
Ordutik desegin da
etxekoon algara
Kapitalaren triskantzen
kapitulu al gara?

4

Ordudanik dena da
istila ta lokatza
mehatxu sorta edo
errepresio latza
Ta nahiz harrokeriz heldu
nagusien solasa
egoak ez du nahasterik
gure ipar-orratza
Jasaten zail den arren
Tubacexen jolasa
denok hodi beretik nahi
gaituztelako pasa.

6

Eta kolperik kolpe
grisaxkatzen da festa
Armatutako beltzen
zurikeria extra
Ubelduekin horitu
nahi baitute protesta
Gorrituko ote diren
ez ibili galdezka
Nahiz grebaren marroiak
egin dien gainezka
prentsan gu berde jartzeko
erreparorik ez da

XIV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Eurek porrak eskutan
gu kexu ta orroka
Zenbait sudur apurtu,
bi zangoak kordoka
Sugarra begiradetan
ta odola borborka
Seguru al gaude nork zein
ote duen gorrota?
Nahiz garesti irteten
ari zaigun borroka
merke saltzea litzake
benetako porrota

9

Horrek bihurtzen baitu
greba hain tragikoa
batik bat denean hain
iraupen handikoa
Klase borroka hori da,
berri zein klasikoa
Tubacex da guzti horren
azalpen grafikoa
Behe mailakoak hutsik
badauka lapikoa
goikoak aise betetzen
du itsulapikoa

11

Grebaldian igaro
arren hainbat trokarte,
sentituz itsasorik
latzeneko uharte,
sarri sufrimendua da
berri onen atarte
Jardun errealetik nahi
gaituztenez aparte
segi nahi dut izaten
utopiaren parte
duintasuna garaipen
bilakatzen den arte

8

Hargatik amaraunez
bete zaigu sakela
hutsik dagoenean
hiru haurren sabela
Zaharrenaren logopeda
txikiaren pardela...
Ongi dakit etxeakoak
kezkatuta daudela
Zaila baita beraiek
ulertzea horrela:
Lan ez egitea, gogor
lan egitea dela

10

Probestuz lanuzteak
sortutako anua
etsitzeko luzatu
ohi digute amua
Saihestuz epaitegien
ebazpen ta manua
nola pizten duten diru
beharraren mamua!
Bultza arren langile
umilen hiltamua
ez borrokatzeak soilik
dakar gure damua

Ametsa Amesgaizto

Doinua: *Amaren bularra*

1

Amets honi jarraika
ia hamar urte
eta haurdunaldia
ze energi txute
hainbeste saialdik ja
fruitua eman dute
irri berriak datoz
malko za(ha)rren truke.

3

Zu ikustera sartu
mediku gelara
“gelditu egin zaizkio
bihotz ta taupada”
ikusten zaitut baina
joan egin zara
baina beti izango
zara nire_alaba.

5

Nahiz zure ahotik ez
dudan entzun “ama”
prest zeneukan logela,
arropa ta dana
triste izeba-osaba,
aitona,amama
arren bidalguzu
denoi muxu bana.

2

Pixkana puzten hasi
zait jada sabela
dena ekografia,
ospitale gela
sei hilabete pasa
ditut ja horrela
ostikoka diozu
laster zatozela.

4

Nahiz dena amesgaizto
bat dela iruditu
zergatik joan zaren
ezin entenditu
malko ta odol artean
zaitut gaur erditu
zure isiltasunak
nau ni erdibitu.

6

Oraindikan puztuta
sabel eta titi
beste nonbait zaizkizu
ateak iriki
haraino hagan egin
ezazu poliki
elkartu arte izan
zoriontsu txiki!

Bertso sorta, hitz egiteko asko dago ta

1

Azken aldian bitxi
Dabil munduko klima
Berriak ikusi ta
Jaitsiz auto-estima
Afghanistani begira
Sutan daukat arima
Miseria emanaldi
Ta beldurra tarima
Berdin da Afghanistan
Irak edo ta Txina
Zergatik da emakumea
Beti lehen biktima?

3

Berriek Afghanistan
Hartuaz berehala
Gaiak izan duela
Oihartzun mundiala
Islama matxista dela
Islama da zitala
Ta horren aurrean noski
Europa liberala
Uzten omen digute ta
Erakusten azala
Hemen ere matxismorik
Ez balego bezala

5

Honekin nola ez egon
Jada akitzen hasita
Betiko eran baita
Betiko ika-mika
Ta hor jarraituko dugu
Guztiok eserita
Kontzientzia guztia
Unicef-i utzita
Lehen mundu hau baita
Ideala, polita
Gora irekitasuna!
Baina mugak itxita

2

Ekialderantz dugu
begira mundu dena
hashtag faltsuez betez
Instagramen barrena
Argazki, txio, abesti
Guk daukagu sormena
“Burka erantzi ezazu”
Delarik gure lema
Ez gabiltza ulertzen
Hor daukaten problema
Oihalak janztea bada
Arazo handiena

4

Bai, hemen ez dugula
Sufritzen han adina
Baina konformismoak
Nola ez eman mina
Oraindik egoera da
Andreontzat gordina
Gona edo praka labur
Batzuk jantzi ezina
Ta gure errua da
Bortxatuak bagina
Beste neurri baten baina
Ez al dugu berdina?

6

Irekitasun hori
Nola zaigun lurrundu
Afganiar andreak
ditugula urrundu
Arazoek banatu ohi
Baitituzte bi mundu
Eta soilik andrezkook
Behar dugu lagundu
Bada ni horrexekin
Ez nago hain seguru
Ahizpak bezala anaiak
Ere Behar ditugu

XIV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Sarri esan didate
Ez nabarmendu, tira
Ez da hainbesterako
Arazoa guztira
Zergatik ote duzue
Horrenbeste gupida?
Gatazka ez omen baita
Heldu Euskal Herrira
Nola ez erantzun gaizki
Guzti honen harira
Andre bat ez baita aske
besteak ez badira

9

Antzeko elkarteez
Nago kokoteraino
Zeren ta eduki arren
Horrenbeste tamaino
Zerura begira daude
Begiratuz bi laino
Nahiz ta mila gerra bizi
Izan diren gaurdaino
Nahiago da erakutsi
Hainbeste desengaino
Errazago baita zerbait
Egiten hasi baino

8

Nahiz eta erreparatu
ONU-ren izenean
Batua den bakarra
Gauza bat da azkenean
Patrika soilik dutela
Buruen barrenean
Laguntza aldarriei ezetz
Esanez zuzenean
Nola ez dut pentsatuko
Bada okerreanean
Eskumenak negozio
Bihurtzen direnean

10

Gai hau bihurtu zaigu
Azken aldiko moda
Baina pasatuko da
Betiko eran denbora
Gauza berriak jazoaz
Ateraz mila froga
Eta eroriko dela
Ahanzturaren zulora
Ez al da munduaren
Guztizko metafora?
Zeren hau kantatzerako
Ahaztuta egongo da

Astelehenetan

Doinua: *esperantzarik gabeko zenbait*

1

Zazpiak eta laurden aldera
alarmaren “pi-pi-pia”,
luzatu ditut hankak, besoak,
irekiz ezker begia.

Kanpoan euri zaparrada bat
pikutara Euskal Herria!

Jada berandu egin zait eta
amaren inpazientzia.

Nola bihurtu dezaket beltza
den astelehen hau zuria?

2

Kafe kapsula xume bat ere
niretzat ez da gelditu,
gailetak berriz kadukatuta
ez nau batere harritu.

Jantziz arropa Ternuakoa
“look”-a ez baitut berritu,
pisu bakarra igogailuan
jaitsi dut eta aditu:

zuria belztu daiteke baina
beltza ezin da zuritu.

3

Institutuan lehen euskara:
jubilatatu, Etxepare!

EGA atera behar dugula,
ez, barkatu, orain ABE.

Matematikan denok gabiltza
festetan mozkorren pare,
zentzu gabeko ekuazioak
milaka endredu, sare.

Hori guztia arrautza soil bat
sukaldatzen jakin gabe!

4

Eguna motel doa aurrera
Biologia tarteko.

Gizarte ere eduki dugu
lo-kuluxka egiteko.

Gorputz hezkuntza dator ondoren
izerdi usaina lepo,
irakasleak agindu digu
azkar korrika hasteko.

Ni beroketa amaitzerako
bertan erori naiz seko.

5

Bilera gero gaztetxe aldean
betiko “posturetekin”.

Gaur lanerako gogoia faltan,
ez naiz harritzen horrekin...

Kontu guztiez kexatzen gara
pankarta pare batekin,

bina zigarro erretzeari
azkenik diogu ekin:

gazteok dena lortuko dugu
hain ideal sendoekin!

6

Bertso eskola dudala ere
oso zail da ahaztea.

Hor ibili naiz txukundu nahian
hitz basatien katea.

Ni saiatu naiz zerbait egiten,
abstraktua da artea!

Aurten bost urte hasi nintzela
eta bai dela tristeza,

zortziko txiki bat poto gabe
abesten ez jakitea.

XIV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

7

Egun osoa eman ostean
batetik bestera dantzan,
institutuko lo-kuluxketan
eta errimen arrantzan.

Gazte izanik galderez beti
josita nabil, zalantzan.

Hortzak garbitu gabe ohean
sartu naiz erdi balantzan,
asteartea zuriagoa
izango den esperantzan.

LAU LETRATXO

Doinua: Martxa baten lehen notak. Mikel Laboa

Lau letratxo elkarren ondoan:
akronimoa da, brabo!

Eta atzean bertso-eskola bat...

barkatu, askoz gehiago!

A, L, B eta ondoan E,

ALBE lez ezagunago,

bertsozale bik sortu zutena

gaur baino askoz lehenago.

Laurogeian sortu zuten eta,

ez ote dugu arraro

hainbeste urtez jardun izana

bertsogintzaren abaro?

Sekretutxo bat badauka, baina,

irauteak aroz aro,

ALBEn ahotsak ugari dira,

bihotza bakarra dago!



www.albe.eus